

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Etxe Maitia, Autonomia Pertsonala Garatzeko Komunitate eta Egoitza Laguntzarako Udal Zentroa (Basauri)**

20/2021 Legearen 2.1 artikulutik eratorritako epe luzeko behin-behineko enplegua egonkortzeko prozesu bereziaren deialdiaren Oinarri espezifikoak, erizainen lanbide kategoriarako A2 azpitaldekoari dagokiona.

Presidente andreak, 2022ko abenduaren 22an, Ebazpena onartu du, eta honako hau xedatzen du ebazpen-zatian:

Lehenengoa: Erizainen lanbide-kategoriako lanpostu bat txanda librean hautatzeko deialdia onartzea, A2 azpitaldeari, 21 ordainsari-mailari eta 3.1 kodeari dagokiena.

Bigarrena: A2 azpitaldeko, 21 ordainsari-mailako eta 3.1 kodeko Erizainen lanbide-kategoriako lanpostua txanda irekiaren bidez betetzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak onartzea.

Hirugarrena: Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua ematea, bai eta deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua ere.

Laugarrena: Deialdia onartzen duen ebazpenaren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bi hilabete epean, Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, hilabete epean, ebazpena eman duen organo beraren aurrean, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitakoaren arabera.

Basaurin, 2022ko abenduaren 22an.—Kontseilu Errektoreko Lehendakaria, María Larrinaga Artetxe

**ERANSKINA.**

20/2021 LEGEAREN 2.1 ARTIKULUTIK ERATORRITAKO EPE LUZEKO BEHIN-BEHINEKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO PROZESUBEREZIAREN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK, ERIZAINEN LANBIDE KATEGORIARAKO A2 AZPITALDEKOARI DAGOKIONA

1. Deitutako lanpostuak

Erizainen lanbide kategoriarako A2 azpitaldeko lanpostu bat (1) betetzeko deialdia egiten da, txanda irekian, honela banatuta:

LANPOSTU KOPURUA	EZAUGARRIAK (hizkuntza eskakizuna, derrigortasun data, lanpostu-mailako osagarria, berariazko osagarria, berariazko betekizunak, etab.)
1	3.1 kodea. 3. HE, derrigortasun-data: 2015/01/01 A2 azpitaldea. 21. ordainsari-maila. Urteko ordainsari gordina 51.159,94 €

2. Parte hartzeko eskakizunak.

2.1. Lanpostuak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretako 2. paragrafoan oro har ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

2.2. A2 azpitaldeko langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatiko tasaren zenbatekoa honako hau da: 18€

2.3. Oinarri orokorretako 2. h) apartatuan xedatutakoari dagokionez, ERIZAINZAKO DIPLOMATU EDO GRADU titulazioa eskatzen da.

3. Lanpostuak esleitzeko berariazko betekizunak.

3.1.- Deialdi honen xede diren plazei lotutako lanpostuetan, hirugarren hizkuntza eskakizuna (3HE) betekizun izan ahalko da. Euskara jakitea derrigortasun data igarota duten lanpostuen baldintza da.



Betekizun horiek oinarri orokorretako 2. eta 8. oinarrietan ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko dira.

4. Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa-oposizioa izango da:

4.1. Oposizio fasea

Oposizio fasean bi proba egingo dira, eta nahitaezkoak eta baztertzailak izango dira.

Oposizio fasean gehienez ere 60 puntu eskuratu ahalko dira.

4.1.1. Lehen proba:

Teoriko-praktikoa izango da eta bi zati izango ditu:

A zatia: galdetegi bat izango da eta erantzuteko hainbat aukera izango ditu. Galderak oinarri espezifiko hauen I. eranskineko gaitegi orokorraren inguruak izango dira.

B zatia: galdetegi bat izango da eta erantzuteko hainbat aukera izango ditu. Kasu teoriko- praktikoa izango dira eta oinarri espezifiko hauen I. eranskineko gaitegi espezifikoaren inguruak izango dira.

Probaren gehienezko balioa 60 puntukoa izango da (A zatiak 0-20 puntu artean eta B zatiak 0-40 puntu artean). Erantzun oker bakoitzeko erantzun zuzen baten balioaren heren bat kenduko da, eta kanporatuak izango dira proba osoan 30 puntu edo gehiago eskuratzen ez dituztenak.

Epaimahaiak, proba egin eta gero eta dagokion erabakia hartuta, erantzun zuzenak argitaratuko ditu oinarri orokorren 7. apartatuan aipatutako lekuetan.

4.1.2. Bigarren proba, euskara proba: derrigorrezkoa eta baztertzaila izango da nahitaezko hirugarren hizkuntza-eskakizuna (3.HE) duten lanpostuak lortu nahi dituzten izangaientzat.

Proba hau Gaitzat edo Ez gaitzat joko da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazak lortu nahi dituztenentzat. Hizkuntza-eskakizunik bete behar ez denean, euskara jakitea merezimendutzat hartuko da.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta badago, ez da egiaztatu beharko. Horretarako, parte-hartzaileak baimena emango dio, berariaz, Etxe Maitia Udal Egoitzari erregistro horretan egiaztatzea.

Hala ere, erregistro horretan ez dagoen beste edozein euskarako titulu edo ziurtagiri aurkeztu beharko da, baina baliozkotuta, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren mailekin parekatzeko den azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera.

Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak, euskarazegindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteko denak,



xedatutakoaren babesean hirugarren hizkuntza- eskakizuna(3HE) egiaztatu nahi dutenek ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute. Ondorio horietarako, ETZEBn baliozkotu diren salbuespenak baino ez dira aitortuko.

4.1.3. – Proben garapena.

Kategoria bakoitzeko hautagaiak deituak izango dira probak egiteko deialdi bakarrean. Epaimahaiak hautapen probetan aukera eta tratu berdintasuna bermatzeko, proben deialdiko baldintzak aldatu ahal izango ditu haurdunaldi, erditze edo ezinbesteko bestelako arrazoiak direla-eta proba egitera joan ezin diren pertsonentzat. Inguruabar horiek, ahal den heinean, epaimahaiari jakinarazi beharko zaizkio proba egin aurretik, eta justifikazio agiriak atxiki beharko dira.

Epaimahaiak proba egiteko denbora eta bitartekoak egokituko dizkie egokitzapenak behar dituzten eta parte-hartze eskarian hala adierazi duten hautagaiei, eta horrela, gainerako parte- hartzaileekiko aukera berdintasuna izango dute, baldin eta horrekin probaren edukia hutsaltzen ez bada eta beharrezko gaitasun maila gutxitzen edo urritzen ez bada.

Hautaketa probak egitera joan ahal izango dira prozesuan onartuak izan diren pertsonak eta baztertuak izanda ere, egiaztatzen dutenak ebazteke dagoen gora jotzeko errekurtsua jarri dutela. Identifikazio ondorioetarako probak egitera joango dira Nortasun Agiri Nazionalarekin, pasaportearekin edo gidabaimenarekin.

Oposizio faseko proba bukatuta, epaimahaiak behin-behineko emaitzak argitaratuko ditu eta 10 egun balioduneko epea ezarriko du erreklamazioak jartzeko. Epe hori bukatuta eta hala badagokio aurkeztu diren erreklamazioak ebatzita, epaimahaiak jendaurrean erakutsiko ditu behin betiko emaitzak.

Emaitzen argitaratzeak jakitera emango dira oinarri orokorren 6. oinarrian aipatutako lekuetan.

4.1.4. – Oposizio faseko puntuazioen zerrenda.

Oposizio faseko probak bukatuta eta hala badagokio, aurkeztu diren erreklamazioak ebatzita, epaimahaiak aginduko du gainditu dutenen puntuazioen behin betiko zerrenda argitaratzea, eta sarbide txandaren eta modalitatearen arabera argitaratuko dira.

4.2. Lehiaketa fasea

Lehiaketa fasean gehienez ere 40 puntu lortu ahal izango dira eta puntuen baturak zehaztuko du baremo honen arabera:

A) Esperientzia: 30 puntu gehienez



a.1. Esperientzia orokorra:

Esperientzia orokortzat hartzen da edozein administrazio publikotan, deialdia egin duen administrazioan barne, dagokien hautaketa- prozesuaren muina diren arestikoeekin parekatutako esperientzia, baldin eta zerbitzu horiek aurreko kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate edo lanbide-taldeetan emandako zerbitzuengatik izandako esperientzia, eragin duen harremanaren arabera langile hori funtzionarioa zein lan-kontratuduna izan.

Gehienez 10 puntu emango dira, baremo honen arabera:

- Erizainen lanbide kategoriarako A2 azpitaldean edozein administrazio publikotan, deialdia egin duen administrazioan barne, egindako zerbitzuengatik 0,0046 puntu lan egindako egun bakoitzeko.

a.2. Berariazko esperientzia:

Hautaketa-prozesuan deitutako lanpostuak betetzeagatik deialdia egin duen administrazioan emandako zerbitzuak berariaz, bereizita eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri gisa baloratuko dira, gehienez ere 20 punturekin, baremo honen arabera:

- Erizainen lanbide kategoriarako A2 azpitaldean administrazio deitzailean egindako zerbitzuengatik, 0,0092 puntu lan egindako egun bakoitzeko.

Zenbatzeko, erakunde bakoitzean lan egindako aldien batura egingo da. Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira. Ezin izango da egun berean kontratu/izendapen bat baino gehiago zenbatu.

b) Merezimendu akademikoak. Gehienez 10 puntu

emango dira merezimendu hauengatik:

b.1. – Deitutako plazei lotutako lanpostuen eremu funtzionalei lotutako eta erakunde ofizialek (administrazio publikoko eskolak edo institutuak, administrazio publikoak, unibertsitateak, lanbide- elkargoak, mutualitateak, fundazioak, elkarteak, federazioak) emandako edo homologatutako prestakuntza-ikastaroak jasotzeko orduengatik, 0,034puntu jasotako ordu bakoitzeko, gehienez ere 10 puntu.

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du.



6. Lan-poltsa

Deialdi honek lan poltsa bat sortuko du eta plazarik eskuratu ez duten, baina oposizio fasea gainditu duten pertsonak egongo dira bertan.

Hautaketa-prozesu honen emaitzaren ondorioz, lan-poltsa bat sortuko da. Lan-poltsa horrek, hasieran, 3 urteko iraupena izango du, eta oposizio-aldiko ariketa gainditu duten izangaiekin osatuko da. Era berean, aldi baterako langile- beharrei erantzuteko erabiliko da, eta Etxe Maitia Udal Egoitzako lan-poltsak arautzen dituen araudian ezarritakoaren arabera kudeatuko dira, eta lehentasuna izango dute dauden lan-poltsen aldean.

7. Lehentasun-klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzeko, artikuluko horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula ez da aplikatuko, Erizainen lanbide kategoriarako A2 azpitaldean emakumeen azpiordezkaritzarik ez dagoelako .



I. ERANSKINA. GAITEGIA

GAITEGI OROKORRA

1. gaia: 1978ko Espainiako Konstituzioa Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubideak eta betebeharrak.
2. gaia: Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua. EAren eskumenak: eksklusiboak, legegintza garapenekoak eta betearazpenekoak.
3. gaia: Basauriko Udalaren antolamendua. Erregelamendu organikoak.
4. gaia: 4. gaia. 64/2004 Dekretua, apirilaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzen dituena (2004ko apirilaren 23ko EHAA, 76. zk.).

GAI ESPEZIFIKOAK

5. gaia: Egoitza-arretako zentroko esku-hartze plan indibidualizatua.
6. gaia: Erizaintzako kode deontologikoa. Sekretu profesionala.
7. gaia: Erizaintzako zainketen etika eta balioak. Bioetikaren printzipioak.
8. gaia: Diziplina anitzeko lana. Erizaintzako profesionalaren zeregina taldearen barruan.
9. gaia: Arretaren kalitatea, kalitatea erizaintzan.
10. gaia: Geriatria eta gerontologia. Kontzeptuak, eremuak eta garapena.
11. gaia: Zahartze-prozesua. Zahartzeari buruzko teoriak: biologikoak, psikologikoak eta sozialak. Biztanleriaren zahartzea eta ondorioak.
12. gaia: Erizainaren lanaren ezaugarriak adinekoak zaintzean. Adineko osasuntsua. Erizaintzako zainketak.
13. gaia: Erizainaren ebaluazioa, zahartzeak berez dakartzan aldaketek adinekoaren beharrianak asetzeko duten eragina, Virginia Henderson-en erizaintza-ereduaren arabera. Independentzia- zeinuak. Mendekotasun-zeinuak.
14. gaia: Erizainaren ebaluazioa. NANDA diagnostikoak, adinekoaren eta desgaitasun intelektuala duen pertsonaren beharrian guztien asetze-mailarekin zerikusia dutenak.
15. gaia: Erizainaren ebaluazioa. Zainketen plana, egon daitezkeen erizaintzako esku-hartzeak (NIC), adinekoaren eta desgaitasun intelektuala duen pertsonaren beharrianekin zerikusia dutenak.



16. gaia: Erizainaren ebaluazioa. Helburuak (espero diren emaitzak). Erizaintzan lor daitezkeen emaitzen sailkapena (NOC); adinekoaren eta desgaitasun intelektuala duen pertsonaren beharrianekin zerikusia duten emaitzena, hain zuzen.
17. gaia: Erizainaren ebaluazioa eta zainketak, sistema muskulu eskeletikoan alterazioen bat duten adinekoei dagokienez. Patologia ohikoenak. Osteoporosia, artrosia eta artritis erreumatoidea. Hausturak. Aldakako eta/edo belauneko protesia duen pertsona mugitzea.
18. gaia: Erizainaren ebaluazioa eta zainketak, funtzio kardiobaskularrean alterazioen bat duten adinekoei dagokienez. Bihotzeko patologia eta gaixotasun baskular periferiko ohikoenak. HTA/AHT, bihotzeko patologia, bihotzeko arritmia, sindrome koronario akutua, tronbosi benoso sakona, gorputz-adarretako iskemia kronikoa.
19. gaia: Erizainaren ebaluazioa eta zainketak, arnasketa funtzioan alterazioen bat duten adinekoei dagokienez. Patologia ohikoenak. Arnas gutxiegitasun akutua, buxadurazko arnas gaixotasun kronikoa, infekzio-prozesuak, pneumonia.
20. gaia: Erizainaren ebaluazioa eta zainketak, sistema gastrointestinallean alterazioen bat duten adinekoei dagokienez. Patologia ohikoenak. Gastroenteritisa, hantura-prozesuak, heste-buxadura, pankreatitisa. Nutrizioaren alterazioa.
21. gaia: Erizainaren ebaluazioa eta zainketak, sistema endokrinoan eta metabolikoan alterazioen bat duten adinekoei dagokienez. Patologia ohikoenak. Diabetesa, hipotiroidismoa eta hipertiroidismoa.
22. gaia: Erizainaren ebaluazioa eta zainketak, nerbio-sisteman alterazioen bat duten adinekoei dagokienez. Zentzumen-alterazioak. Patologia ohikoenak. ACV/GHI, Alzheimer-en gaixotasuna, epilepsia, ELA/AEA, Parkinson gaitza.
23. gaia: Erizainaren ebaluazioa eta zainketak, sistema genitourinarioan alterazioen bat duten adinekoei dagokienez. Patologia ohikoenak. Gernu-infekzioak, gernu-erretentzio akutua, giltzurrun-gutxiegitasun akutua eta kronikoa.
24. gaia: Erizainaren ebaluazioa eta zainketak, buru-nahasmenduak dituzten adinekoei dagokienez. Prozesu arruntenak. Eskizofrenia eta beste nahasmendu psikotiko batzuk, antsietatea, gogo-aldartearen nahasmenduak, depresioa.
25. gaia: Sindrome geriatriko ohikoenak: mugiezintasuna, inkontinentzia, nahasmendu akutua, insomnia, bakartzea eta deserrotze soziala. Ebaluazioa. Prebentzioa. Erizainaren zainketak.
26. gaia: Presio-ultzerak eta ultzera baskularrak. Etiologia. Sailkapena. Ebaluazioa. Prebentzioa. Erizainaren zainketak. Presio-ultzerak daudenean jarduteko protokoloa.



27. gaia: Adinekoaren medikazioa. Aldaketa farmakozinetikoak. Adinekoaren medikazio-arazoak. Efektu kaltegarriak. Medikazioaren arloko jarduera terapeutikorako eta kudeaketarako protokoloa.
28. gaia: Erizainaren zainketak gaixo terminalekin. Arazo nagusiak. Mina. Zainketa aringarriak. Bizitzaren amaieran dauden gaixoekin jarduteko protokoloa.
29. gaia: Heriotza adineko pertsonarengan: nola bizi duen, dolua. Zaintzaile nagusiari eta familiari eman beharreko laguntza. Heriotzaren aurreko protokoloa.
30. gaia: Adineko pertsonak eta desgaitasun intelektuala duenak bizi dituzten egoera berezi hauen aurrean eraginkortasunez jardutea: erorketak, harat-honat ibiltzea, mugak, bizikidetzarazoak, oldarkortasuna. Zaintzailearen eta mendekotasuna duen pertsonaren arteko harremanak eta tratu txarren prebentzioa. Prebentzio eta tratamendurako protokoloa: erorketak, agitazio psikomotorra, muga fisikoak, muga farmakologikoak eta tratu txarrak.
31. gaia: Desgaitasun intelektuala duten pertsonak. Definizioa, sailkapena, arazoaren eragina eta esanahia. Etiologia.
32. gaia: Desgaitasun intelektuala duten pertsonen buru-nahasmenduak izateko duten arriskua.
33. gaia: Familiaren lana; familiaren harremana gizarte-zerbitzuekin. Familiei etengabeko arreta emateko protokoloa.
34. gaia: Adinekoen eta desgaitasun intelektuala duten pertsonen autonomia ebaluatzeko eskala erabilienak. Arreta eskaintzeko banakako plana (PAI) egiteko nahitaez erabili behar diren eskalak.
35. gaia: Elikadura eta nutrizioa hirugarren adinean: Nutrizio-beharrak eta kaloriarik gabeko elikagaien beharrak. Funts-gaien beharrak. Behar hidrikoak eta bitamina-beharrak. Mineral- beharrak. Nutrizio eta hidrataziorako protokoloa.
36. gaia: Loaldia eta haren nahasmenduak: Zahartzaroko aldaketa fisiologikoak. Zahartu ahala agertzen diren nahasmenduak. Insomnioaren arazoak. Terapia farmakologikoa.
37. gaia: Ariketa fisikoa eta zahartzea: Kontzeptua. Ariketa fisikoak adinekoarengan dituen ondorioak. Ariketa fisikoaren egokiespenak. Ariketa fisikoaren kontraindikazioak.
38. gaia: Hipertentsio arteriala: TAREN aldaketa adinaren ondorioz. HTA/AHTk hirugarren adinean duen eragina. HTA/AHTren etiologia geriatrician. Prebentzioa eta erizaintzako kontrola.
39. gaia: Adinekoaren ahoko patologia: Hortzen zahartze-prozesua. Aho-mukosa: adinaren ondoriozko aldaketak. Listu-guruinetan eta listu- jarioan gertatzen diren aldaketak. Adinekoaren hortz-zainketa.



40. gaia: Elikagai bidezko toxiinfekzio ez- bakterianoak. Elikadura-intoxikazio ez-bakterianoak. Enterotoxina estafilokozikoak eragindako intoxikazioak. Beherako birikoak. Elikadura-intoxikazioen profilaxi orokorra.
41. gaia: Lan-osasuna. Ergonomia: osasun arloan kargak manipulatzeko jarraibideak. Lanaren eta osasunaren arteko harremana.
42. gaia: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan- arriskuen Prebentzioari buruzkoa: I. kapitulua Xedea, aplikazio-esparrua eta definizioak. II. kapitulua. Arriskuen prebentzio-arloko politika, laneko segurtasuna eta osasuna babesteko. III. kapitulua. Eskubideak eta betebeharrak.